

GETXO / Unai Elorriagak 'Londres kartoizkoa da' nobela aurkeztuko du bihar Algortan

Unai Elorriaga idazle algortarrak 'Londres kartoizkoa da' bere laugarren eta oraingoz azken nobela aurkeztuko du ostegun honetan, azaroak 26, Algortan, Euskal Kulturaren XI. Jardunaldien barruan. Egizu Getxo Euskaldun! elkartearen Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak antolatuta, 20.00etan izango da saioa, Algortako kultur etxean, Villamonten. Bitartean, Egizuk eta Getxoko Udal Euskara Zerbitzuak elkarlanean bultzatutako Sendi egitasmoa topera dabil. Getxoko umeak eta gurasoak euskaraz hainbat tailerretan aritu izan dira azaroan zehar. Baina, ez kezkatu, oraindik parte hartzeko aukera dago eta. Ostiral honetan, hilak 27, aerobic saioa egingo dute Geroa ikastola getxoztarrean; eta astelehenean, Algortako Zubilleta ikastetxean kamishibai tailerrarekin amaiera emango diote, azaroko tailer sortari. Informazio gehiagorako zein izena emateko, 685 732 963 telefono zenbakia daukate eskura aita-amek. Argazkian, Unai Elorriaga idazle algortarra.

Araitx irakaslearekin batera eta musikaren erritmo bizian gorputza astinduko dute denek batera, ostiral honetan, 17:00etatik 18:30era, Getxoko Geroa ikastolan. Haur zein gurasoei arropa eroso eta eramatea gomendatu diote Sendikoek. Aerobic saioa 8 urte eta gehiago dituzten neska-mutilentzat prestatu dute eta, gehien jota, 15 umek parte hartu ahal izango dute. Hala ere, 8 urtetik beherako haurrik egotekotan (aurretik jakinaraztea eskatu dute), begiralea jarriko dute.

Kamishibai euskaraz

Kamishibai hitzak 'paperezko antzerkia' esan nahi du eta Japonian ipuinak kontatzeko modu ezaguna da. Orriak erabiltzen dira (alde batean marrazkia eta bestean testua) eta umeek ipuina ikusten duten bitartean aurkezleari entzuten diote. Horren ostean umeek kamishibaia egiten ikasiko dute. Esan bezala, tailerra astelehenean, hilak 30, izango da, 18:00etatik 19:30era, Zubilleta ikastetxeko liburutegian. Saioa 8 eta 10 urte artean dituzten neska-mutilentzat prestatu dute eta, gehienez, 20 ume hartuko dituzte. Hala ere, aerobic-ean bezala, 8 urtetik beherako haurrik egotekotan (aurretik jakinaraztea eskatu dute), begiralea jarriko dute.